

SAGARRA-MANZANA / SAGASTIA-MANZANAL

Sagastiko jardueren egutegi praktikoa: urria, azaroa eta abendua.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 15/10/2013 · 16:20

Sin comentarios



Datozen hiruhilabeteetan sagastiak bere fruituak emango dizkigu eta apurka-apurka bere jarduera begetatiboa motelduko du, erabat gelditu arte, geldialdi begetatiboan sartuz. Egin beharreko lanak garrantzitsuak dira:

URRIA:**ARBOLEN FORMAIZIOA**

Aurten hilabete honen zehar sagar gehienak jasoko dira. Uzta noiz egin erabakitzeko hiru sistema ezberdin erabili ohi dira, sagarren heldutasuna neurtzeko:

- Mamiaren gogortasuna neurtuta, penetrometro baten bidez.
- Azukrearen kantitatea neurtuta, refraktrometro baten bidez.
- Almidoiaren erregresioa neurtuta, sagarrak zehatz moztu eta iodoarekin bustita.

GAITZAK ETA IZURRITEAK

Sagar arraren hirugarren belaunaldiaren bukaeran izango gara. Arrek kapullo bat sortuko dute bere barrenean negua igarotzeko, bai enborren zirrikitueten, bai egurra zaharren zuloetan.

Armiarma gorrien neguko errunaldia amaieran dago. Arrautzak bi geruzek babestuta daude, negua arazorik gabe igarotzeko. Horregatik, garai honetan haien kontrako tratamendurik egitea alferrik da.

ONGARRIKETA

Uzta amaitzerakoan hostoetako ongarriketa bat egitea komenigarria da, arboletan erreserbak betetzeko eta horrela begi lore onak izateko. Boro, Zink eta Nitrogenoz aberatsak diren ongarririk erabili.

AZAROA:**ARBOLEN FORMAIZIOA**

Uzta bukatu da eta hostoak erortzen hasten dira. Arbolak sustraietatik azken elikagaiak hartuko ditu. Garai honetan ez zaio ezer egiten arbolari.

GAITZAK ETA IZURRITEAK

Kobre tratamendu bat egiteko garai onena da. Horrela, ahal den neurrian, ondo txar batzuek garbituko dugu arbola. Adibidez gorrina, monilia, zurina, txankroa, fitoftora...

Kobrea produktu bakterizida bat dela ere oroitu behar da.

Fitoftora edo lepo usteldura izanez gero, sustraien goiko aldea zuritu behar da eta kobrez "margotu" brotxa bat erabilita, txerto punturaino. Gero, lurrarekin estali berriro.

ABENDUA:**LURRA ETA ONGARRIKETA**

Arbolak landatzeko asmoa badugu eta lurra prestatu gabe badugu, orain egin beharko dugu, lurra egoera onean aurkitzen bada noski. Egin beharreko lanak hauek dira:

- Lurzorua garbitu.
- Ur gehiegi izanez gero: drainatze lanak egin.
- Subsolutu.
- Lurpeko ongarriketa.
- Errotaitzurra pasa.

ARBOLEN FORMAIZIOA

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

RSS Feed
Twitter
Facebook

Buscar / Bilatu

Categorías

Azokak-Ferías
Ekitaldiak-Eventos
Errezetak-Recetas
Esperientziak-Experiencias
Formazioa-Formación
Gastronomia-Gastronomía
Historia-Historia
Kultura-Cultura
Lehiaketak-Concursos
Museos-Museoak
Sagarrak-Manzana
Sagastia-Manzanal
Sidra-Sagardoa
Sidrerías-Sagardotegiak
Turismoa-Turismo

Post Recientes



Sagastiko hiztegia: sagar barietateak.



Sagar-entsalada errezeta.



1908 urtea. Saint Brieu-eko Kongresu Pomologikoa (Frantzia). Fraisoroko Zuzendaria D. Henri Delairek aurkezturiko memoria (Lehen zatia).



Bertsolaritza eta sagardoa.

Inausketaren hasiera da. Arbola gazteetan formazio inausketa bat egingo dugu, aukeratutako gidatze sistemaren araberakoa. Arbola helduetan fruktifikazio inausketa bat egingo dugu, aireberritzea eta argitasuna bilatzeko.

GAITZAK ETA IZURRITEAK

Arboletan geratu diren fruituak lurrera botako ditugu ahal den neurrian, bere deskonposaketa errazteko. Txankroz beteriko adarrak moztzen baditugu, sagastitik aterako ditugu, hurrengo udaberrian infekzio iturri bat ez izateko.

Iturria: Sagardoaren Lurraldea 32 Boletina.

Egilea: Aitor Etxeandia Azpiazu (Sagarlan S.L.)

Tags: calendario, egutegia, manzanal, octubre, otoño, Sagastia, udazkena

Anterior post

Octubre 2013: Sidras de Lizeaga y Gurutzeta para degustar en Sagardoetxea. 2013ko urria: Lizeaga eta Gurutzeta sagardoak dasta daitezke Sagardoetxean.

Siguiente post

La manzana, reina de las frutas.Sagarra, fruten erregina.



Sagarra, fruten erregina.

Comentarios recientes

Sagardoaren Lurraldea en XIV. Kirikoketa Besta Arizkunen, azaroaren 2an.

agandamin en XIV. Kirikoketa Besta Arizkunen, azaroaren 2an.

Aritz en Donostiako XXVIII. Sagardo Eguna, irailaren 7an.

Hsedfuloi en Sagardogintzan oinarritutako herri kirol lehiaketa XII. Sagar Uztan.

David en Saizar sagardotegia, aurrealde berria eta irudi modernoagoa.

Tu comentario / Zure komentarioa

Nombre *requerido*

Email *requerido*

Web

Enviar